


# HALABE HARREZ MEDIKU





# HALABEHARREZ MEDIKU

BIBLIOTECA  
DE ERANDIO

FELIX ZUBIAGA

Eragileak: Fermin eta Juan Mari Iraolagoitia

Egilea: Felix Zubiaga

Marrazkilaria: Jesus Antonio Ruiz

Margoa: Ernio, S. L.

Depósito Legal: BI - 83 - 1986

Inprimaketa: Igarri, S. C. L. - Deusto-Bilbao

Argitaratzailea: IKA, Euba - Tnoak: 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal

**HALABEHARREZ MEDIKU**



«Gaur atzoko marka gainditu behar dot. Ea bost minutotan hamar gol eta ikastolarako abiada galdu barik. Hor dago ba meritoa: bidebatezko gauzea izan daitela. Porteritzat zintarriaren zabalera bera. Argi-postea dagonean, postea ezpabere hormea, berebilen tartea edo aurretiz begiz jotako zokoren bat. Zu bidean zoaz eta dapa harri koskor bat, sagar-mutxikin edo pote zahar batek bidera urteten deutsu «jo nagik» eskatzen. Zuk daroazun abiada bat ere gutxitu edo handitu barik tauk ostikadea igarokeran. Aurretiz aukeratu dozun zokora badoa harri-koskorra edo danadalakoa, gol markatzen dozu. Erratuak ez dira kontatzen...


«Ea gaur atzoko marka gainditzen dodan. Ezkerraz ala eskumeaz hasiko naz? Batzuk eskumeaz hasteak suertea dakarrela, dinoe, baina ez nago ziur. Klank! Jo! Piper-latak tentagarriak izaten dira. Halako dundunaz erantzuten deutsue, jokua loretu baino ez. Ezkerragaz esan dot? Batean hobe letorke, eratsuago behinipehin, ezkerraz hastea, bestean eskoiaz, baina txandea aukeratuta dagonez egitekotan. Ez dago gero nahitara aldatzerik. Aurretiz ondo begiratu, nondik urten leiken harri-koskorak edo danadalakoak... Han dager aukerea. Ezkerragaz hasiko naz. Gertu, Arkonada! Ba noa! Tok. Bua! Okertu egin da harria. Harlosetako erretenagaitik izan da. Ertzak oratu egin deutso eta ezkerregi eroan. Huts egin dot. Ausaz harri-koskorra ezkerrarentzat txikerregia izan da ondo aparatzeko eta orduan, harria jo beharrean, lurra joten dozu. Eta zapata-puntea zelan dagon. Urratu-unetxo hori atzokoa da, amak ikusita dauka. Gainera, zapata biak, ezkerrekoa eta eskumakoa, bateratsu maiztuten joatea konbeni da. Ez pisu larregi bota eskoitari.

—Zertarako balio deuk zapata bat ona eukiteak, bestea haginak erakusten badaukak? Ez gagozak heuri urtero zapata barriak erosteko, txotxo. Eta deskuidatzen bahaz, abarketakin bihalduko haugu ikastolara.

—Bai, ama, kontuan eukiko dot...

—Beharko kontuan hartu! Ea abarketa-punteaz harri-kankarrei horrelako ostikadak emoteko hazen...?





«Batez ere harri-koskor hazitxoekin kontuz ibili behar dot. Gabonak arte ez dago zapata barririk. Iraun, zapatatxook, futbolari ospetsu baten oinetan zagoze eta! Han daukazue aukera on bat. Hi, eskumako mustur astintxo, emoiok horri. Kontu, zokoa aukeratzean: ezkerrez, hori da tati-ka. Horrela malmuzkatzen dozu Arkonada. Ba noa! Gertu, Arkonada! Gol! Bat sikan, ikastolara heldu aurretik. Minuto bi falta dira oraindino. Ea atzoko marka gainditzen dodan...


—Kaixo, Txeru! Ekipoa ahaztu jak ala?

—Jo! Ez eistak gogoratu...! Hau burua, ene! Baina, ze ardua jok. Egia jakin gura badok, nik zapatokaz gustora jakatzen joat fulbitoan. Egina nagok bai zapata puntera eta gustorago emoten jeutsat baloiari. Gainera nire zapatak punta motxa jeukek...

—Ez ba... Danok jantzi bardintsuetan ohituratzearren, izan dok bakarrik.

—Ondo jagok, baina ni «zentro izquierda» eta hi «zentro derecha» jokutzen dogunez, janzkeran be zeozertan ezbardintzea ez jagok txarto be...







—Bueno, maisuari bardin deutso...

«Bat, bi, bat, bi bat, bi... Eskuak gora! Bat, bi, bat, bi, bat, bi... Zangoak zabal! Bat, bi, bat, bi bat, bi... Kukubilo! Bat, bi, bat, bi, bat, bi... Garriokertu!... Atsedean orain!

«Gorde lerroa! Oinak batu!... Arnasa-ariketak, danok batera! Ats eta putz: ats gora! Putz behera! Sakonago, txotxo. Ats gora! Putz behera!... Soina zietan sartzen ikasi behar dozue, mutilek!...

«Kontu egin lehenengo eta behin, futbolaria ez dala oin hutsa. Oinakin bakarrik jolasten dauan futbolaria ez da benetako futbolari. Burua ere behar da. Kontu egin ezpabere, munduan izan diran golik bikainenak buruz sartuak izan dirala. Gogoan euki harako Zarra. Buruaz ere bai beraz, eta buruan daukagun zentzunaz, zentzunaz!... Zuek ondo dakizue, herren batek ezin dauala inolaz ere futboleant ondo egin, baina gitxiago itxu batek... oinik bizkorrenak euki eta ere. Ala bai?

—Eeez...!

«Begiak itzi! Egin ames orain, futboleant zabiltzela... Baina zuen besoak, zuen oinak, belaunak, garria, soin guztia geldi dago!... Barruan bihotza, birikiak eta odola dabiltzue bakarrik. Eta zeuen buruko garrauetan dagoneko jokua erabagitzen zagoze, baloia zeuen oinetan, ordua daitenerako...

—Gol!

—Zer jasoten jak, Txeru?

—Parkatu, maisu; deskuidoa izan da...



«Itzi gerorako indarrak. Kontu egin elektrizidatea pilatzen zagozela, gero argi egiteko, gero indar egiteko. Gorde mardoak gero emoteko. Txeru, gaur hik ezkerreko zokoa zainduko dok, Jabik egin daiala esku-makoa. Ea zelan konpontzen zarien alkarren artean.

Ea gaur etxerakoan goizian baino gol gehiago markatzen dodazan. Zuzenetik barik zeharka joango naz, aukera gehiago izan daidan. Yupi! Orain akumuladorea naz! Indarrak pilatzen nago eta teknika barriaz jabetzen dihardut!... Maisuak begiz jota gaukaz Jabi eta biok, datorren urtean Jubenilera jasoteko. Ordurako amak ekipo barria erosiko deust: erreglamentuzko botak, praka motx eta alkandora zuri-urdinak. Onenean baloia ere, bideko harri-koskorrekin saiatzen ibili ez naiten. Klink! Ene! Kotxea aparau dot, ostera ere... Baina gurazek izan da. Benetako baloia izan balitz, ez neutsan koskarik egingo txapeari. Baloia hobe da gainera buruagaz saioak egiteko. Bun, bun, bun. Baloiaz gozo-gozo. Baloiaz zapatak ere ez dira urratzen. Bentaja asko daukaz baloiak, amak jakin behar leuke... Zenbakarren gola daroat gaur? Primera Jubenilera heltzeko, hamar gol sartu behar dodaz gaur... jo! Eta hiru bakarrik daroadaz! Ea etxera bidean, ikastolara bidean baino zuhurrago nabilen...







—Nora zoaz horren prisaz, Txeru?

—Ola, Beatriz! Amaren errekadua egiten...

—Agur, Txeru; bihar arte!


«Jo! Bidean endredatzen banaue, goizean egin nauenez, ez dakit zelan gainduko dodan atzoko markea. Ba noa! Hemen doa Goiko! Aukera bat Urkiagari! Jabi horrek aukera galanta kendu deust goizion, ia sartzeko nengola, gola oinaren puntan neunkala. Jas! Erdiko kale honetan ez ete dago harri triste bat Sarabiarentzako? Garbitzaileak ez ete dabe poteren bat plastikoren bat ahaztu neure esperimentuetarako?... Zelan etxeratu naiteke, atzoko markea gainditu barik? Maisuak dinonez, egunetik egunera hobetu behar dogu, Primerara heldu ahal izateko. E! «Objetivo a la vista!» Eskerrak kale honetako garbitzaile maite! Plastikozko zakar boltsaren bat? Jabiren kirol boltzea dirudi, baloi eta guzti barruan. Hauxe aukerea! Eskuma, heuri tokatzen jak. Ea, erdira golpea. Gertu, Arkonada! Baaang!!!



...

«Jooo!... Hauxe erreglamentuzko baloiaren gorakadea! Arkonadak berak ere, atetik zelai-erdiraino ostikatzen dauanean, ostaz... Ez nozue neu Arkonada, mutilek. Zer da hau, periodisten sarrada! Hainbeste flaxekin begiak ere itxutu egingo deustazuez! Jo! Intxen erasoak jasan-beharra! Zaletasunaren amorrua! Geldi, mutilek! Ez nazela ni Goiko! Ez nazela Urkiaga iztarkilo hartu eta gora-goraka jaso naizuen! Aaai!... Ez nagizue oinetatik tiratu; bernak aterako deustazuez!... Zapatak apurtu ete dodaz gero?... Ama ez daitela konturatu...».





JESSE-83



—Zer jaso jako gure Txeruri? Ene bada, Jainko maitea! Nori? eta geure Txeruri jaso behar halakorik! Ez daukie gero parkazinorik kale erdi-erdian halako tranpa zitalak ipinten dauezanak! Oi ene! Ez dakit, zer izango dan... Kilo bi goma 2. Elefante bat hiltako beste! Ba dago deabruzko jenderik mundu honetan horregaitino! Umea ba doa eta, berak daukan kondizino txarraz... Hara mila bidarrez esanda daukatsat, gauzei bere tokian bakean izteko. Eta alperrik! Haxe harri-koskorra edo bidean aurkitzen dauan edozer ostikoaz jo barik, ezin laket. Oraingoan bai, behintzat..., ene Jainkoa! Eta umea bidean doala, kirol-poltsa bat. Kirol-poltsa bat esan daue, ikusi dauenak. Beste edozelako boltza bat, baina ziur kiroletakoa. Ze amesak darabizan gero! Baina, barruan, baloia daukalakoan? Bai, zera! Horixe: edozeri ostikoz erasoteko daukan grinaren baino. Emoten deutso ostikadea, hain zoritxarrean emon be... eta kataplun!... bertan. Oi ene bada eta enetxue! Ez dakit zer ikusi behar doguh oraindino...»


—Ikusi daikegu Txeru?

—Orain lotan dago.

—Amesetan egongo da. Iratzartu eizu, bere eskola-lagunak gara eta...

—Sartu zaiteze, baina isilik egotekotan, e?

—Eeene! Zer jaso jako, dana bururaino bendauta egoteko?...



«Loak hartuko nindun ezorduan eta anaia zaharrenak oherari lotuko ninduen harakoan legez. Ahokoa ipini deuste ziur, beti futbolaz aspertzen nabilkielako... Ez dakit... Egon nasai, Jabi; askatuko naz lokarriotatik, idoroko dot korapiloa. Ez naz faltako kirol-saioan...»

—Egon nasai, laztana. Zure eskola-algunak izan dozuz hemen. Lotan zagozala esan deutset.

«Nasai... Zelan gura dozu nasai egotea, ama! Ez dakizu zelan nagoan ala? Esku eta oin lotu nauela ohera? Ez dozu ikusten ahotik paineloa ipini deustela, inori deirik egin ez deiodan? Eta neuk zeuri entzunarren, ezin deustudala neuk zeuri barbarik egin? Ez dakit zergaitik izan dan ere eta lokarriok min emoten deuste. Berebilari akatsa egin badeutsat, edo zapatak urratu badodaz, azkena harrikoskorretara jolastea. Hemendik aurrera benetako baloia edo ezer ez. Ia ez naz ume bat, ama. Laster Jubenilera igon behar dot...»

—Aaai, ama!

—Estutu eizuz haginok, laztana; loturak aldatu baino ez deustuz egiten medikuak eta.


—Aaai!

—Minik emoten dauat ala? Ez haz ba hi hako futbolari handia izan behar dokan mutil bikaina? Futbolari handienena dok oinen bat apurtzea eta hik gehiago be lortu dok... Goitzxo hasi hazela, txotxo eta biak apurtu dozakela golpean. Osatuko haz, balientea bahaz eta oraindino gol galantak sartuko dozak Jainkoa lagun. Zein gustatzen jak gehien Zubizarreta ala Arkonada?

—Aaai! Amaa!

—Estutu haginak, laztana, hemen nagotzu-eta.





JESSE-83




—Ez dot gura kirol-boltsarik, ama, ez erreglamentuzko baloirik. Ez dodaz gura!... Ez naz gehiago futbolari izango eta!...

—Ez negarrik egin, Txeru laztana, medikuak baietz dino eta.

—Ez naz joango gehiago futbol-saiotara...

—Jaungoikoak gura dauana izango da, laztana.

«Hau ere ba da gero!... Oin bategaz jo eta biak apurtu. Oinak eta musturrak... Ni bezalako ume asko ei dagoz munduan elbarri eta mintsu... Ni baino txarrago ere bai, nork lagundu ez daukiela. Ez ibilteko oinik eta gainera besamotx..., ezer ahora eroateko, inoren esku-beharretan dagozela. Neu ere apur bategaitik... Jaungoikoari eskerrak, ibilteko lain eta eskuak maniatzeko izango nazela, esan deust medikuak, lokarri honeetatik askatu naitenean. Besoak apurren bat mugitzen dodaz eta hatzamarretan ez dot kalte handirik, antza. Nire begiak egunero eta argitzenago doaz. Jo! Igaro dot, igaro, ilunaldi bat! Eta ni gaua zelakoan, ni anaien txantxeta zalakoan... Nirea ez da izan halan ere, horrenbeste-koa, munduko beste elbarri askoren aldean, Libanon, Nikaraguan-eta... zauritzen diranen aldean...»





—Telebistako jendea daukazu hemen, Txeru. Zelan zagozan ikusi gura zaitue. Ume asko zutaz arduraz ei dagoz eta pantailan ikusi gura zaituela...

—Arpegia erakusteko moduan daukat ala ,ama?

—Baietz uste dot, seme. Erantzun eikiezu gura dozuna, bildur barik.

—Baina, ama, ez daiela flaxik atera, begietan min egiten deust eta... Ez daistela zoritxarreko boltseaz galdetu...

—«Ola, Txeru, qué tal estás. Somos los de la Tele...» Une honetan ikastolako eta mundu guztiko umeak begira dagotzuz; zeure osasunaz arduratzen dira eta batek baino gehiagok orazinoak egin dauz zeugaitik, ahalik arinen osatu zaitezana eta lehenbailehen kalera urten ahal daizun. Zer esango zeunskie zeuk hemendik?

—Eskerrik asko, ikastolako nire lagunei eta nigatik arduratu diran guztiei.

—Zeintzuk dira zure faboritoak futboleant?

—Ba!... Goiko, Urkiaga... eta besteak; baina hori joan da.

—Zergaitik joana dala? Medikuak osatuko zarala dinoe. Zer izan gura zenduke etorkizunean?

—Mediku...

—Zertarako mediku eta ez beste bizibideren bat, jakin ahal balei.

—Munduan dagozan hainbeste elbarri osatzen laguntzeko, euren bizitza mundu honetan pozgarriagoa egiteko...

—Oi, bai ederto, Txeru! Ziur mediku bikaina izatera helduko zara. Eskerrik asko, Txeru, teleikuslari txiki guztien partez.

—Eskerrik asko...





# KOKOMARRO

FELIX ZUBIAGA

Luisito izatez kikiltxoa ba zan ere, azkarra zan eskolan. Bederatzi urtegaz ondo ere ondo ikasten ebazan lezinoak eta maisuak besteak beste maite eban. Luisito pozik ebilen eskolara.

Behin Luisitoren ikasgelan leihoko kristal bat apurtu eben eta zerua iduli jakon Luisitori... Maisuak listea galdetu eban, ea nor zan jakitearren. «Ni ez,, ni ez, ni ez» erantzun eben danak. Maisuak danentzako zigorra gertu eukala, «Luisito izan da» esan eban atzetik abots itxura galdukoak, nork ez ekiela.

Luisito? Maisua nahiko harritu zan, baina patioko paperak batzen bialdu eban Luisito. Luisito negarrez egoan, ez paperak batu beharragaitik, eskola-lagunak horrela saldu ebelako baino.


—Ni ez naz izan, maisu —zotinka esan eutsan gero banasean Luisitok maisuari—. Ba dakit nor izan dan; Koko Gorri izan da eta...

—A..., Koko Gorri! Ba nengon ba! —arnasea hartu eban maisuak—. Lehenago esan behar zeunstan hori, Luisito.

Koko Garri deitzen eutsien klaseko buru edo jefeari, berak burrukarako onartua eukan izenez. Maisuak ondo ezaguan Koko Gorriren bihurikeria eta zentzaldia emoteko, danen aurrera deitu eta Luisitoren orde, patioko paperak batzen bihaldu eban.

Batzuk barre egin eben Koko Gorriren lepotik, burua makur paperak batzen ikustean, «horrek guri bai, baino maisuari ezin jeutsok», inoen isil-misilka. Beste batzuk isilik egozan Koko Gorriren asperkundearen bildurrez. Luisito ere isilik egoan.






Zigorra bete eta gerotxoago ba jatorko Koko Gorri eta lurrera txua eginik «txibato» deitu eutsan Luisitori danen aurrean. «Txibato!» Koko Gorriren konsignea agindua egin zan askorentzat eta ordutik, sasiak lorea legez, hartu eben lagunak Luisito.

Luisito amari negarrez joan jakon etxera, hauxe eta hauxe jaso jat eta «txibato» deitu deuste, esanez. Lanetik etorri barri, entzun baino ez eban egin aitag, semeari «txibato» deitu eutsiela eta hasarre-bitsetan zarata baten hasi jakon:

—Txibatoa heu? Txibatorik geure etxean? —Garriko ugela askatu eta zizti-zazta beragaz emonemonak egin eutsazan Luisitori—. Ez joat gura nik txibato-semerik!-inoala.





—Zer zabilz, gizona? Umeak errazoia baino ez dauka eta! —Ama bitartekotu zan eta aitaren ugela geldituazo eban—. Edo inoren erruak jasan behar ete ebazan geure umeak?

Aitak, otso zaurituak legez, urrumaz antzera egin eban, «ez daidala barrero entzun» inola.

Luisitoren zeru jausia ilundu egin zan eta eskolan eta kalean lehen baino ere kikilago agertzen zan.

Behin Koko Gorrik bakezko pipea erretzen gonbidatu eban Luisito. Urioste hegaleko latazko txabolan zan batzarra. Koko Gorriren lagunak dozenerdi bat. Porroa eskuz-esku igaroten eben. Luisitok ez eban erretzen, baina harako «txibato» susmoa urruntzarren, keak iruntzi ebazan. Uriosteko latazko txabolan edo mendiko hartzuloan, hantxe izaten ziran bilerak eta dirutan taka-taka ordaindu behar izaten zan erregarria.





BIBLIOTECA  
DE ERANDIO



Luisitok hamabi urte eukazan ordurako; asteroko guztiak astelehenean xautzen ebazan eta handik aurrera, hor eskatu eta hemen hartu ebilen, erregarrien zorrak ordaindu eta Koko Gorriren boltsako tripa-zorriak baretzearren.

Koko Gorriren taldea gero eta sekretutsuagoa egin zan, berak, jefe bereziak, «txokolatea» zuzendu eutsenetik eta «txokolatea» erretzen hasi ziraretik. Karuago ere ba zan txokolate hori eta hagaitik Luisitok gero eta diru geriago behar eban. Amak, asteroko diruaz nahikotu behar zala eta, ez eutsan gehiagorik emon gura izaten. Hagaitik behin diru barik joan zan Luisito txabolako batzarrerera.

—Eta dirua? —samatik oratu eutsan Luisitori Koko Gorrik, ito beharrez erabilela.

—Ekarriko dauat, ekarriko dauat, haaj...! —Hitz erdi itoetz zin egi-ten eutsan Luisitok Koko Gorriari.

—Bai, berton tragatea gura ez badok... —katarrak sagua legez, hatzaparretan eukan Koko Gorrik Luisito, bildurraren bildurrez begiak betazuloetatik urten beharrez entzuten ebanarren—. Zer uste dok ba? Erregalatzeko ume-gozokia dokala? Hau gizonena dok, txotxo!...



Egun baten zilarrezko aspil ederra falta izan zan etxeko gela apai-  
netik. Luisitoren gurasoen ezkon-gomutakia zan.

—Zeu izan zara, seme? —igarri egin eutsan amak, Luisitoren beste  
lapurreten jakitun.

—Bai, neu izan naz, ama —aitortu eban Luisitok—. Zorrak ordain-  
du ezik, hil egingo ninduan harek bestela...

—Nork gero? —koilarea sartu eban aitak latz eta garrataz mahaian  
jesarri aurretik.

Luisito lehenengo aitari begira, gero amari, gelditu zan, betartea  
dardaraz eta totel-motel, «lagun batek» esan eban.

—Esaistak neuri, narrua kendu deiodan, nor dan lagun hori —Go-  
gorrean hartu eban aitak Luisito—. Bestela heuri kenduko dauat...!

Luisitok, ahoa gogortu bailitxakon, murik ere ez eban esaten eta  
aitak garriko ugela dantzatu eban aidean eta Luisitoren bernetan eta ha-  
ren bizkarrean. Ama bitartekotu zan osterera ere; aitaren hasarre-bitsak  
hibitzen joan ziran, baina «lagun hori» nor zan jakin arte ez ebela lake-  
tuko aginduz.

Halako baten, aitaren ugelak ezkerreko begia gorritu eutsan Luisi-  
tori. Amak medikuagana eroan eban umea, badaezpadan. Medikiak begia  
aztatu eutsan, gero betartea, gero bernak eta bizkarra...





—Nok egin deutsu hau —galdetzen eutsan medikuak umeari. Luisito isilik, Koko Gorriren haizto zemaian aurrean bailegon. Amak aitortu behar izan eban etxeko istilua eta gauzea Txikien Auzitegira eroatekoa zala, esan eban medikuak. Epailariak Luisitoren aitari itaundu eutsan.

—Nik bere onerako jo dot —aitortu eban aitak—. Bai, bere atzetik drogatan dabilkon lagun horri kontuak hartu gura neuntsazan eta berak txintik be ez neuri... Nor dan iragarri eistan, jo dot...

—Behin bere defentsan, erruduna salatu ebalako, «txitabo» iraina zala-eta zigortu ez bazendun, gure semeak aitortuko eban. —Ama dana aitortzen hasi zan zotinka.

Aita gurasoaren begiak ere samurtu egin ziran, berari umetaroan jazoriko epaitegian kontatzen hasi zanean, berari ere halako baten «txibato» deitu eutsiela-eta...

Medikuak eta epailariak aitaren gogakera-nahastea ulertu eben eta bere damua egiazkoa zela ikusirik, umea ez ebala gehiago ikutuko, agintzen eban eta, aske bialdu eben.


Aitak isilian negarrak egin ebazan; Luisitogana joan eta zer gura eta hatan laguntzeko prest eukala, agindu eutsan. Bakarrik ezin leikiola dirurik emon lagun gaizto hari drogea erosteko. Aitak semearen aurka eginiko oker guztiak zuzendu gurako leukezan eta arrisku guztietatik zaindu Luisitoren etorkizuna.

Luisitok aitaren aldaketa eta amaren ardurak ba ekusan, ikusi, baina ez jakon isiotzen barruko zeru argitsua eta ordezeko ames ustelak erosten, txokolate haren gozora, kale-bazterretara joaten zan.

Etxean zilarrezko kutxatila falta izan zan, gero amaren urre-kurtzea eta paparreko bitxia. Gurasoak konturatzen ziran, konturatu, eta onean-onean inotsoen:

—Esan eiskuzu, laztana eta geuk askatuko zaitugu... —Amak txerra handiz hartzen eban.








—Ale, mutil! Zeren bildur haz? —hitz gozatu oldartu gura eban aitak—. Esaik eta orduan ez dot izango inongo haiztoren bildurrik, ez droga galgarriaren beharrik.

Luisitok dardaraz eta negarrez entzuten eutsen; gurasoen maitasuna ekusan alde batetik, Koko Gorriren eskuan haizto zorrotza bestetik disdira larritan, bere drogaminaren bide lerrakorra, ezin itzuria legez, «ikus-ten dok hau?» Koko Gorriren haizto-zemak ekusan Luisitok «Sast! Hau-xe egiten jeutset nik txibatoei».

Luisitok, droga-gosez eta taldeaganako zintzotasuna aitortu beharrez, ez eban hutsik egiten batzarretara.

Gurasoak medikuagaz berba egin eben eta Luisito drogamin-  
duen gaisotegira joateko prestatu zan. «Bai, urrundu egin gura dot hemendik, askatu egin gura dot, bizi egin gura dot» inoan Luisitok bere artean, Koko Gorriren ingurutik aldentzen zala, jakitean. Hamalau urte adin-  
erako, zirt edo zart egin behar eban: edo gizon askatu eta jopu iraun.




Medikuak mintsuen taldera bialdu eben Luisito, baserri-giroko osasun-bidea ezagutu eian. Hasieran pastila batzuk hartu eta itzelezko okak jasan behar izan ebazan, drogearen lokarritik askatu arte. Gero lagunkideen lehenengo irribarreak ezagutu ebazan. Lurra lantzen eben, lurreko frutak jastatzen eta joku osasungarriak antolatzen.

Hile batzuetarako Luisito beste bat zan, galdu izan eban zerua barriro idoro izan baileuan. Luisitoren gurasoak beste lako distira ikusi eben Luisitoren begietan, gaisotegira bere bila joan ziranean. Etxera itzuli eta medikutza jarraitzen eban, Koko Gorrien batzarrei agur egin eutsela.

Halako baten, Luisito kaletik joala, narruzko jake baltzaz jantzi-riko mutilak agur egin eutsan. Luisitok, otsoaren aurrean harako Txanogorrik senti leukeana, sentidu eban kale erdian. Koko Gorri zan jake baltzduna eta aintzinako adiskidetasuna ospatzeko, zuri batera gonbidatzen eban. Luisito zurtu gelditu zan. Ez ekian hertzainei deitu ala arrapaladan etxera iges egin.





—Bai, ba jakiat hirea: txokolatea ahaztu dokala, ez hadi larritu, esne sartzen eutsan ohiko deabruak.

«Ez dot erreko —erabagi eban Luisitok— eta erabat, txibatoa ere ez nazela, erakutsiko deusat».

—Zeuk dakizun zuri bana biontzat —keinu egin eutsan Koko Gorrik barmanari, ia bezten eukan bibotea okertuz.

Luisitok edari zuriska haretatik edan eban eta Luisito mareazinoak hartu eban handik laster.

—Nor izan da hori egin deutsuna, seme? —Amorruarren, haginak estutzen ebazan aitak, semea ataurrean dardaraka zerraldo eta begiak zuritan ikustean.

—Zer egin deutsue, seme, medikuak jakin daian —Amak belaumiko erregutzen eutsan—. Nor izan da? Esan eiskuzu...





Medikuak berjausialdia zala, esan eban. Beharrezkoa zala, zetariko drogea hartu eban jakitea, medikutza egokia ebazteko. Auzoko arriskuetatik drogaminduen gaisotegira eroan eben barriro. Ausaz osatu eitekela, itxaropena emoten eban medikuak, baina gaitzaren iturria aurkitu beharko zala, edozelan be.

Luisitok hamabost urte daukaz eta bizi da oraindino, hiltzear bizi da eta ez dago astirik ipuina kontatzen jarraitzeko. Zeuek dakizue, zein dan Luisitoren gaitza eta ezertxo ere egin barik, geldi bazagoze, laster Luisito hil egin dala, entzungo dozue. Arerioa salatzea, «txibato» izatea dala, uste dozue oraindino? Kokomarroari marroa kentzeko ordua da.







## UMEENTZAKO IPUIN-TXORTA

- 1.—MARI ANBOTON ETA GORBEAN, Juan Manuel Etxebarria
- 2.—BAKOITZARI BEREAN, Ramón Etxebarria
- 3.—TXOLINTXU ETA NEKANETXU, Bibiñe Pujana - L. C. Abeal
- 4.—KARRAMARROEN IBILALDIA, Félix Zubiaga
- 5.—FRAKOTE IKERLARI, Ana Arruza
- 6.—MARI ANBOTOKOREN IBILALDIAK, Josu Penades Bilbao
- 7.—KUKUMETS, Juantxu Rekalde
- 8.—BASAJAUNAK, Juan Manuel Etxebarria
- 9.—AMAMAREN ABERETXOAK, Bibiñe Pujana
- 10.—LAMIÑAK, Juan Manuel Etxebarria
- 11.—KUKU PASOTA, Félix Zubiaga
- 12.—TXITXIBURRUNTZI ETA ARATOSTE, Bibiñe Pujana
- 13.—HALABEHARREZ MEDIKU, Félix Zubiaga
- 14.—IBANENTZAKO ARGI APUR BAT, Edurne Urkiola
- 15.—MAINTON ETA PRAISKU, Bibiñe Pujana
- 16.—ABEREA, Igone Magunagoitia
- 17.—ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA, Ramón Etxebarria
- 18.—KISMI ETA OLENTZERO, Juan Manuel Etxebarria
- 19.—ZOLI ETA KUKUBILTZO, M.<sup>a</sup> Luisa eta Bibiñe Pujana
- 20.—OILANDA BALTZA, M.<sup>a</sup> Luisa eta Bibiñe Pujana
- 21.—ARGINTXO ETA ENEKO KUKUAMETSEN, Juantxu Rekalde eta M.<sup>a</sup> Luisa Pujana
- 22.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 23.—ARPEKO MARI, Eusebio Erkiaga
- 24.—SAN MARTINTXO, Juan Manuel Etxebarria
- 25.—PERUTXU ETA JENTILA, Juan Manuel Etxebarria
- 26.—HODEIA ETA ABADIA, Juan Manuel Etxebarria
- 27.—ARGI ETA TXIKO DEABRUAK, Juan Manuel Etxebarria
- 28.—PRAKAGORRIAK, Juan Manuel Etxebarria
- 29.—GORBEAKO TXORI GAIZTOAK, Juan Manuel Etxebarria
- 30.—GAUEKO ARIMAK, Juan Manuel Etxebarria